

1. 8. NAHITAKOAK EZ DIREN LESIOAK


Definizioa

Kapitulu honetan, elkarrizketa egindako data baino hamabi hilabete lehenago gertatutako istripuek eragindako nahitakoak ez diren lesioen maiztasuna deskribatzen da. Honako puntu hauetan arreta jarri da: zein tokitan gertatu ziren istripuak, zein gorputz-atal kaltetu ziren eta zeintzuk izan diren ondorioak ohiko jardueretan eta zerbitzu sanitarioen erabileran.

Osasun Inkesta 2007

2007an, gizonezkoen %7k eta emakumezkoen %6k nahitakoa ez zen lesioren bat jasan zuten, azken urtean. Gizonezkoen kasuan, istripurik gehien 15 urtetik 24 urtera arteko adin-taldekoek izan zuten; eta adin horretatik aurrera, istripuen maiztasuna behera egiten hasi zen, adinak gora egin ahala. Emakumezkoen artean, 65 urte eta gehiago zutenak izan ziren maiztasun handiena izan zutenak (1.8.1. irudia).

1.8.1. irudia. Istripuak izandako pertsonako urteko tasa, sexua eta adina kontuan hartuta, 2007.



Istripuaren lekua

Istripuaren lekuak, pertsonak haien jarduera nagusiak egiten dituzten tokiarekin edo ordu gehien egoten diren tokiarekin zerikusi zuzena dauka; eta horrek azaltzen du, istripuaren lekuan sexu eta adinaren arabera ezberdintasunak nabaritzea. Gizonezkoek izan zituzten istripuen laurdena baino gehiago (%26) lantokian gertatu ziren, %24 toki publiko batean (esaterako: kalea, denda edo parke publikoa), eta %20 jolasteko edo kirola egiteko toki batean. Trafikoko istripuak eta etxean gertatutakoak ez ziren hain sarri gertatu (%15 eta %13, hurrenez hurren). Emakumezkoen kasuan, etxea izan zen istripua sarrien gertatu zen tokia (%36); eta ondoren beste hauek zetozen: leku publikoak (%28), trafikoko istripuak (%14), jolastu edo kirola egiteko tokiak (%11) eta lantokia (%9).

Adinari dagokionez, 15 urtetik beherako gizonezkoengan istripu gehienak jolasteko tokietan edo beste toki publiko batzuetan gertatu ziren; 15 urtetik 24 urtera arteko gazteengan trafikoko istripuak izan ziren nagusi; 45 urtetik 64 urtera artekoengan istripuak lanean; eta 65 urte eta gehiago zutenengan etxean gertatutakoak eta oinezko gisa trafikoarekin zerikusia zutenak. 14 urtetik beherako neskek, istripu gehienak ikastetxean edo jolasteko tokian izan zituzten; 15 urtetik 24 urtera arteko gazteek leku publiko batean; 25 urtetik 44 urtera artekoek trafikoko istripuak edo lan-istripuak; eta 45 urte eta gehiago zituztenen kasuan etxean gertatu ziren.

Istripuaren mekanismoa


Sarrien gertatu ziren istripuak, erorikoek eta talka edo kolpeek sortutakoak izan ziren. Mekanismo horiek, sexu eta adinaren arabera, aldatu egin ziren. Beraz, erorikoa emakumezkoengan (istripuen %61) gizonezkoengan (%44) baino sarriago gertatu zen; talka edo kolpeen kasuan, berriz, kontrako gertatu zen, gizonezkoengan istripuen %29 eta emakumezkoengan %19 eragin zutelako. Erorikoek eragindako istripuak ohikoagoak izan

ziren haurtzaroan eta zahartzaroan; talka edo kolpeek eragindakoak, aldiz, 15 eta 44 urte artean gertatu ziren.

Istripuagatik jasandako lesioak

Goiko gorputz-adarrak (istripuen %37) eta behekoak (%35), sarrien kaltetu ziren gorputz-atalak izan ziren; nahiz eta adinaren eta sexuaren arabera aldaketak egon. Beheko gorputz-adarrak, haur eta gazteen kasuan eta adineko pertsonengan gehien kaltetu zirenak izan ziren. Beheko gorputz-adarretako kalteek behera egin zuten adinak gora egin ahala, eta toraxekoak izan ziren areagotu zirenak. Goiko gorputz-adarrak, bi sexuetan, 25 urtetik 64 urtera artekoengan gehien kaltetu zirenak izan ziren (1.8.2. irudia).


1.8.2. irudia. Istripuen banaketa (%) kaltetutako atalen arabera, sexua eta adina kontuan hartuta, 2007.



Istripuaren ondorioak

Istripuzko lesioen %67 larrialdietako zerbitzu batek atenditu zituen, %62k pertsonal medikoari galdetu behar izan zion, %57k euren ohiko jarduerak eten edo gutxitu behar izan zituen, %21ari istripuaren ondorio fisikoak edo mentalak geratu zitzaizkion, %10 ospitaleratu behar izan zen; eta azkenik, %1,4 Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) egon zen. Istripuen ondorioak ezberdinak izan ziren adina eta sexuaren arabera. Ospitalean edo ZIUan ingresatzeko probabilitatea gehitu egin zen adinak gora egin ahala, eta gizonezkoengan emakumezkoengan baino altuagoa izan zen. Larrialdietako zerbitzu batean atenditu zen gizonezkoen proportzioak, halere, behera egin zuen adinak gora egiten zuen heinean. Emakumezkoek gizonezkoek baino neurri txikiagoan murriztu edo eten zituzten haien ohiko lan edo aisialdiko jarduerak (1.8.3. irudia).


1.8.3. irudia. Istripuen banaketa ondorioen arabera, sexua eta adina kontuan hartuta, 2007.



Lan-istripuak


Biztanleria aktiboaren %2,4k (gizonezkoen %3,2 eta emakumezkoen %1,4), lan-istripuaren bat izan zuen inkestaren aurreko hamabi hilabeteetan. Istripuak gizonezkoengan emakumezkoengan baino sarriago gertatu ziren. Gizonezkoen kasuan, gazteengan istripuen proportzioa altuagoa zela nabaritu zen; emakumezkoengan, berriz, kontrako egoera gertatu zen, adinak gora egin ahala istripuak gehitu zirelako (1.8.4. irudia). Aurreko inkestarekiko, gizonezkoengan zein emakumezkoengan, lan-istripuen tasan jaitsiera bat antzeman zen.

1.8.4. irudia. Lan-istripuen urteko tasa (1.000 pertsona aktiboko), adina kontuan hartuta, 1997-2007.



Gizonezkoengan lan-istripu bat izateko probabilitatea handiagoa da, talde sozioekonomikoa egoera txarragokoa den heinean (I. irudia); eta hori, talde sozioekonomiko bakoitzak dituen lan-baldintzak desberdinak izateak eragin lezake. Emakumezkoen kasuan, ezberdintasun sozial horiek nabaritu ziren, baina intentsitatea txikiagoa izan zen. Gizonezkoengan, egoera txarragoan dauden taldeen istripuak izateko tasak behera egin du; baina emakumezkoengan kontrakoa gertatu da gora egin baitu (1.8.5. irudia).


1.8.5. irudia. Lan-istripuen urteko tasa (1.000 pertsona aktiboko, adinaren arabera estandarizatua), talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 1997-2007.




Trafikoko istripuak

Trafikoko istripuak lesioek eragindako heriotza-kausa nagusia dira, eta bereziki gazteengan dute eragina; bi sexuetan, 15 urtetik 24 urtera arteko gazteengan heriotza-kausa nagusia baitira. 2007an, inkesta egin zitzairen hamaika mila gizonezko eta zortzi mila emakumezko trafikoko istripu bat izan zutela aitortu zuten. 16 urtetik 24 urtera arteko gizonezkoak izan ziren istripu-mota hauek pairatzeko probabilitate handiagoa izan zutenak; emakumezkoen kasuan 25 urtetik 44 urtera arteko adin-taldean, baina probabilitatea askoz baxuagoa izan zen. 2002ko aurreko inkestarekiko, behera egin du trafikoko istripuen tasak bi sexuetan eta adin-talde guztietan (1.8.6. irudia).

1.8.6. irudia. Trafikoko istripuen urteko tasa (1.000 pertsonako), adina kontuan hartuta, 1997-2007.




1.8.7. irudia. Trafikoko istripuen urteko tasa (1.000 pertsonako, adinaren arabera estandarizaturia), talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 1997-2007.



Etxeko istripuak


Istripu-mota hau, emakumezkoengan (22 bider mila) gizonezkoengan (10 bider mila) baino sarriagoa izan zen. Emakumezkoen kasuan, istripu horiek esponentzialki gehitu egin ziren adinak gora egin ahala, 65 urtekoak gainditzen zituzten berrogeita hamabost milako tasara iritsi arte. Gizonezkoengan, azken inkestan nabaritu da muturreko adinetan, haurrengan eta 45 urtetik aurrera, istripuak izateko aukera handiagoa dagoela (1.8.8. irudia).

1.8.8. irudia. Etxeko istripuen urteko tasa (1.000 pertsonako), adina kontuan hartuta, 1997-2002.



2007an, etxeko istripu bat izateko probabilitatean ez zen ezberdintasun sozialik egon (1.8.9. irudia). Gizonezkoen kasuan, ez zen ezberdintasun esanguratsurik hauteman. Emakumezkoengan, egoera txarreko taldekoetan gainerakoetan baino tasa zertxobait baxuagoa zela nabaritu zen; eta tarteko taldeko emakumezkoak etxeko istripu gehien izan zutenak izan ziren.


1.8.9. irudia. Etxeko istripuen urteko tasa (1.000 pertsonako, adinaren arabera estandarizatua), talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 1997-2007.



Kirol-istripuak


Kirol-istripuen maiztasuna, gizonezkoengan (14 bider mila) emakumezkoengan (7 bider mil) handiagoa izan zen; eta ezberdintasun hori gazteagoen artean handiagoa izan zen (1.8.10. irudia). Gizonezkoen kasuan, maiztasunik handiena 16 urtetik 24 urtera artekoengan nabaritu zen; eta adin-talde horretatik aurrera, adinak gora egin ahala behera egin zuen. Emakumezkoengan, maiztasunak adinarekin gora egiten zuen; eta maiztasunik handiena 16 urtetik beherakoek erakusten zuten.

1.8.10. irudia. Kirol-istripuen urteko tasa (1.000 pertsonako), adina kontuan hartuta, 1997-2007.



Kirol-istripuen maiztasuna, bi sexuetan, egoera hobeagoan zeuden taldekoengan handiagoa izan zen. Azken urteetan, maiztasun hori areagotu egin da talde sozial horietan, gizonezkoengan nahiz emakumezkoengan (1.8.11. irudia).


1.8.11. irudia. Kirol-istripuen urteko tasa (1.000 pertsonako, adinaren arabera estandarizatua), talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 1997-2007.



1997. urteaz geroztiko eboluzioa


Istripuen maiztasuna, gizonezkoengan zein emakumezkoengan, apenas aldatu da azken hamar urteetan (1.8.12. irudia).

1.8.12. irudia. Istripuen urteko tasa (% adinaren arabera estandarizaturik), sexua kontuan hartuta, 1997-2007.




Adin-taldeen arabera, gizonezkoengan istripuen maiztasunak behera egin zuen haurrengan; 15 urtetik 44 urtera artekoengan jaitsiera txiki bat nabaritu zen; eta 45 urtetik aurrera pixka bat gora egin zuen (1.8.13. irudia).

1.8.13. irudia. Istripuren bat izan duten gizonezkoen urteko tasa (%), adina kontuan hartuta, 1997-2007.




Emakumezkoen kasuan, adin-taldeen araberako istripuen maiztasunak aldaketa gutxi izan ditu: gazteenengan 2002an behera egin ondoren, aldaketa oso txikiak gertatu dira; 65 urtetik gorakoengan 2002an gora egin zuen eta 2007an ia ez zen aldatu (1.8.14. irudia).

1.3.14. irudia. Istripuren bat izan duten emakumezkoen urteko tasa (%), adina kontuan hartuta, 1997-2007.



Aldaketak garrantzi txikikoak izan diren arren, etxean gertatutako istripuek gora egin dute, eta 2002 urtearekiko toki publikoetan eta kalean edo aisialdiko tokietan jazotakoek ere gora egin dute. Bestalde, honako hauek dira behera egin dutenak: batetik, trafikoko istripuak; eta bestetik, ikasketa eta lan tokietan gertatutakoak (1.8.15. irudia).

1.8.15. irudia. Istripuak, gertatzen diren lekua kontuan hartuta, 1997-2007.



1997an eta 2002an istripuak izateko aukera egoera hobean zeuden taldeetako gizonezkoengan pixka bat baxuagoa bazen, 2007. urtean, egoera hobean dauden taldeetako gizonezkoek istripuak izateko tasak altuak direnez, ia ez zen ezberdintasun sozialik nabaritu. Emakumezkoen kasuan, ezberdintasun sozioekonomikoen garrantzia oso txikia izan zen kontuan hartutako denboraldi osoan (1.8.16. irudia).

1.8.16. irudia. Istripuak izandako biztanleen urteko tasa (% adinaren arabera estandarizatua), sexua eta talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 1997-2007.

